

## I. ERANSKINA

### OINARRIAK 2025-2026 IKASTURTERAKO BOST ORDUKO eta BARNETEGIKO LIBERAZIOEN DEIALDIA (2025eko urritik 2026ko otsailera)

#### 1.- Helburua

Deialdi honen xedea da 5 orduko edo barnetegiko moduluetan euskara ikastaroetan parte hartzea.

#### 2.- Ordu kredituaren sistema

2005eko azaroaren 30eko aginduaren bidez IVAPek eta UPV/EHUK sinatu zuten hitzarmenari jarraituz, **ordu kredituen sistema ezarri zen** (2005eko abenduaren 19ko EHAA (239. zk.), I. kapitulua). Agindu hori 2006ko irailaren 30ean sartu zen indarrean, hau da 2006/2007 ikasturtean. Horrela, bada, **ordu kreditu negatiboa** dutenek ezin izango dute liberaziorik izan 2025/2026 ikasturterako.

#### 3.- Betebeharreko baldintzak

Deialdian parte hartzeko baldintzak ondorengoak dira:

- **UPV/EHUKo administrazio eta zerbitzuetako pertsonaleko kidea** izatea (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edo bitarteko funtzionario egonkorra edo lehentasunezko lan-poltsakoak, aldi baterako lan-kontratua duen langilea lanpostu hutsean edo langile egonkorra).
- **Salbuespenak:**
  - 3.1. onartuak izateko aukera izango dute **ordezkapen sindikala** egiten ari diren **bitarteko funtzionarioek**, betiere **bi urte baino gehiago** daramatzatenean egoera horretan. Eta noski, plangintzaren helburu nagusien irizpideak kontutan izanda: derrigortasun data eta unitate mota. Arestian, lehenengo puntuko parentesi artean agertzen direnen tratamendu bera izango dute hauek.
  - 3.2. ordezkoa egiten ari diren **bitarteko funtzionarioak** eta **aldi baterako langile laboralak** onartuko dira, betiere **langile horiek 3 urteko zerbitzuak** badituzte UPV/EHUn. Beharrezkoa izango da, baita ere, lan-kontratuak indarrean jarraitzea liberazioa hasten den momentuan. Liberazioa, kontratuaren edo izendapenaren iraupenaren menpe egongo da.
- Lanpostuaren hizkuntza eskakizuna egiaztatuta edo baliokidea den agiririk ez izatea.

#### **4.- Irizpideak lehenetasun mailaren arabera**

**4.1.** Euskara eskoletara joateko baimenak emateko irizpideak plangintzaren helburu nagusiei lotuta daude eta honako hauek dira lehenetasunaren arabera antolatuak: lanpostuaren **derrigortasun data** (gaindituta, gainditzeke, data gabekoa), lanpostua kokaturiko **unitate mota** (AE, A, B, C, D) eta eskatzailearen **lan egoera** (karrerako funtzionarioa, lan-kontratu mugagabea duen langilea, bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean, aldi baterako lan-kontratu duen langilea lanpostu hutsean). Lehenetasun honi jarraituko zaio:

- Derrigortasun data gainditua duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- Derrigortasun data gainditua duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan-kontratu duen langileak direnean.
- Derrigortasun data oraindik gainditu gabe duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- Derrigortasun data oraindik gainditu gabe duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan-kontratu duen langileak direnean.
- Derrigortasun data ez duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera karrerako funtzionarioa edo lan-kontratu mugagabea duten langileak direnean.
- Derrigortasun data ez duten langileak, unitate sailkapenari jarraituz eta lan egoera bitarteko funtzionarioa lanpostu hutsean edota aldi baterako lan-kontratu duen langileak.
- Arestian aipatzen diren ataletan sartzen ez diren gainontzeko langileak, eta honako irizpideen arabera:
  - a. Euskara ikasten egon izana 2023/2024 edo 2024/2025 ikasturtean (lehenetasuna dute 2024/2025 ikasturtekoek 2023/2024koen gainetik)
  - b. Gainditutako euskara maila (lehenetasuna mailarik handienak du)
  - c. UPV/EHU lan egindako egunak.

**Euskara ikasten egon izana eta maila, gainontzeko langileentzat ere kontuan hartuko da.**

**Oharra:** Ikastaro hauetan parte hartu ahal izateko erreferentziatzat hartu behar den derrigortasuna jabearen lanpostuari dagokiona da eta ez lanpostu hori behin-behineko izaeraz betetzen duena (Zerbitzu betekizunetan dauden funtzionarioak, etab.).

**4.2.-** 2024/2025 ikasturteko lehen lau hilabetekoan 5 orduko liberazioa izan duten eskatzaileen kasuan:  
- Lehenetasuna izango dute %100 probetxua izan duten kideek, hau da, egindako modulu guztiak gaindituak izan dituztenek.  
- Baztertuak izango dira aipatutako aldi horretan modulu bat ere gainditu ez dutenak. Halere, onartu ahal izango da eskaria eskatzaileak euskalduntze prozesuan eduki duen bilakaera aztertu ondoren.

## **5.- Eskaerak**

### **5.1.- Eskaerak betetzeko zehaztasunak**

- Liberazio modulu bakoitzeko (5 orduko modulua eta barnetegiko modulua) eskari bana bete beharko da.

### **5.2.- Eskaerak aurkezteko epea**

Eskariak aurkezteko epea **apirilaren 12tik 30era** bitartean izango da (biak barne). Ez da epez kanpo aurkeztutako eskaririk onartuko.

**Oharra:** Eskariak egiteko azken eguna helduta langileak ez badu nagusiaren baimenik lortu, erreklamazioak egiteko epean aurkeztu ahal izango du baimen hori. Baina eskaria bera, sinadura gabe, epe barruan bete beharko du azalduaz zergatik ez duen nagusiaren baimenik lortu.

**Oharra:** Nagusiek baimena ukatuz gero, txostena egin beharko dute **baimena ez emateko arrazoiak azalduta. Langile bakoitzeko txosten bat helarazi beharko da. Ez dira zerbitzu oso baterako txosten bateratuak onartuko.** Txostenak Euskalduntze Batzordeari bidali beharko zaizkio, 10 laneguneko epean, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak 5 orduko liberazioetarako onartuen behin-behineko zerrenda argitaratzen duenetik kontaktzen hasita. Epe hori erreklamazio egunekin bat etorriko da (**maiatzak 14-25**) eta **txostena helbide honetara bidali behar da:** [euskara-plangintza@ehu.eus](mailto:euskara-plangintza@ehu.eus).

### **5.3.- Eskaerak non eta nola aurkeztu**

Eskaerak Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren web orrian dagoen inprimakia beteaz aurkeztuko dira modu telematikoan. Inprimakia helbide honetan dago eskuragarri: Aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira **ehutauletan** eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren web orrian: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/deialdiak/indarrean-dauden-deialdiak>. Eskabide bakoitzeko inprimaki bana bete behar da.

Eskaera egin ondoren, eskatzaileek eskaeraren datuak berresteko mezu bat jasoko dute beren helbide elektronikoan. Berrespen hori UPV/EHUn erregistro elektronikoan erregistratuko da: [https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/catalogo/registro\\_electronico?lang=eu](https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/contents/catalogo/registro_electronico?lang=eu). Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza aukeratu behar da. Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUn txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu egiten ditu interesatuak UPV/EHUREKIKO harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzekoak ere).

Era berean, berrespena aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaitan laguntzeko UPV/EHUn bulegoetan aurkeztu diren eskaerak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak:

erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHU; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.

## **6.- Lizentzia erabiltzeko baldintzak**

### **6.1.- Klaseen egutegia eta egindako huts egiteak zuzitzea**

Ikastaro hauek eskatzen dituzten langileek IVAPek jartzen duen egutegia onartu behar dute, IVAPek antolatutako taldeetan baldin badaude. IVAPek antolatutako taldetik at baldin badaude euskaltegiaren egutegiari jarraituko diote.

Hau honela, lanorduetan euskara ikasteko onartua izan den langileak ezin izango du beste eratako ikastarorik egin ezta oporretarako egunik hartu (ezinbesteko kausak salbu), baldin eta horrek euskaltegiko klaseetara huts egitea eragiten badio. Horrelakoetan, huts egiteak ezin izango dira zuritu. Gogorarazten zaie ikasle guztiei **huts egite guztiak zuritu behar dituztela** Euskara y Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzan eta euskaltegian ere abisatu.

Hutsak gertatu direnetik, hilabeteko epea egongo da berauek zuzitzeko. Lizentziei eta baimenei buruzko arautegian kontutan hartzen diren asistentzi faltak zuritu ahal izango dira bakarrik, bertan ezarritako ziurtagiriak aurkeztu behar direlarik.

Egindako hutsak ezarritako epean zuzitzen ez dituen langileak, eskolatik kanpo utziko ditu Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak.

### **6.2.- Hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko froga**

Liberazio eta ikastaro hauetan onartuak diren langileek hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko aldiro egiten diren frogetara aurkeztu beharra izango dute, beti ere ondoren aipatuko ditugun azpimailak egiten ari badira:

- **B1B1 hizkuntza-eskakizunera** aurkezteko, **A2B1** edo **B1B1** azpimailak egiten egotea.

- **B2B2 hizkuntza-eskakizunera** aurkezteko, **B1B2** edo **B2B2** azpimailak egiten egotea.

Hala ere, bi maila horietakoren bat egiten ari diren eta oraindik B1B1 maila egiaztatuta ez duten langileek B1B1 mailako frogetara aurkeztu edo zuzenean B2B2 maila egiaztatzeko frogara aurkeztu ahal izango dute.

- **C1C1 hizkuntza-eskakizunera** aurkezteko, euskalduntzeko **B2C1** edo **C1C1** maila egiten egotea. Hala ere, B2B2 (egiaztatu gabea) hizkuntza-eskakizuna duen lanpostu batean dauden eta euskalduntzeko B2C1 maila egiten ari diren langileak B2B2 egiaztatzeko probetara aurkeztuko dira. Irizpide hau ez betetzeak liberazio berririk ez eskuratzea ekarriko du.

### **6.3.- Liberatuta dagoen batek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatzen badu.**

Langileren batek ikastaro honetan diharduen bitartean dagokion lanpostuko HE egiaztatuko balu ikastaroari uko egingo lioke beti ere IVAPek langileak utzitako hutsunea ordezkatzekotan. Kasu honetan langileak lanorduz kanpo jarraitzeko aukera dauka. Hutsunea ordezkatzeko aukera IVAPen aldetik ezinezkoa bada, jarraitu ahal izango du lanorduetan (5 ordutan) ikastaroa bukatu arte. **Jarraipen hori nagusiaren oniritziarekin izango da.**

**Oharra: Erreferentzia-profila B2B2 izango da, B1B1 eskatzen zaien langileentzat.**



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA ETA HIZKUNTZA PLANGINTZARAKO  
ERREKTOREORDETZA  
VICERRECTORADO  
DE EUSKERA Y PLANIFICACIÓN LINGÜÍSTICA

## **7.- Onartuen zerrendak**

Aurkezteko epea bukatu eta eskariak aztertu ondoren, onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratuko dira **ehutauletan** eta Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren web orrian: <https://www.ehu.eus/eu/web/euskara/indarreko-deialdiak>.

**Behin-behineko zerrendak maiatzaren 13an** argitaratuko dira, eta interesdunek **maiatzaren 14tik 25era** izango dute **erreklamazioak aurkezteko epea**. Erreklamazioak deialdi honetako 5.3 puntuan azaldutako prozedurari jarraituz egingo dira, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzaren webgunean eskuragarri dagoen zuzenketa-inprimakia, dokumentazioa eta erreklamazioak beteaz.

Hutsak zuzentzeko, dokumentazioa gehitzeko eta erreklamazioak egiteko epea amaitu eta Euskalduntze Batzordean aztertu ondoren, **behin betiko zerrendak ekainaren 3tik** aurrera argitaratuko dira lehen aipatutako web-orrian, Euskalduntze Batzordea bildu ondoren.